



Tolosa Goxua azokak herriko eta inguruko gozogileak bilduko ditu

HITZORDUA ▶ Larunbatean egingo dute San Frantzisko ibiltokian, goizean zehar, 09:00etan hasita

PARTE-HARTZAILEAK ▶ Guztira 22 gozogile izango dira postuetan, eskualdeko 6 eta 16 kanpotarrak ▶ 4,5

IBARRA ▶

Kanparako proiektuak urrats berri bat eman du

UA11ren desjabetza onartu du Udalbatzak ▶ 6



EDURNE MENDIA ▶ EUSKARA TEKNIKARIA

«Euskararen normalkuntzan baikor izan behar dugu»

Tolosarra euskararen normalizazioaren saileko arduradun berria da, bai Tolosan bai eta Alegialdean ere ▶ 3

MIKEL NIEVE ▶ TXIRRINDULARIA

«Ongi ibili nahi baduzu, asko entrenatu beharra dago»

Valenciagaren Oroimenezkoan lehen geratu zen bere mailan, leitzarra ▶ 7



Mikel Nieve. N. GARZIA

AISIA ▶

Asturiasera eta Saloura Harizpe elkartearekin

Harizpe jubilatuen elkarteak bidaia antolatu du Saloura, maiatzaren 27an irtenda, 15egunez. Irteera 07:00etan izango da, aipaturiko egunean, San Frantziskotik. Bazkideek 381 euro ordaindu beharko dituzte eta ez bazkideek 387 euro. Bestalde, Asturiasera ere antolatu dute 6 eguneko bidaia hilaren 16tik 21era. Bazkideek 245 euro ordaindu beharko dituzte eta ez bazkideek 250. Oraindik badago izen emateko aukera. Gaur egin ahalko da, 10:30etik 12:30era elkarrean bertan.

KULTURA ▶

Pirritx eta Porrotxerako sarrerak salgai

Laskorain Ikastola 40. urteurrena ospatzen ari da aurten, eta beste zenbait ekitaldirekin batera, Pirritx eta Porrotxen saioa antolatu dute Leidorren hilaren 21ean, 18:00etan. Ikuskizuna ikus-terera joan nahi duenak sarre-
rak Laskorain, Uzturpe, Anoeta eta Irurako Ikastoletako idazkaritzetan lortu ahalko ditu.

OSASUNA ▶

Erretzeari uzteko tratamendua antolatu dute

Osasun eta Gizarte zerbitzuetako departamentuak antolaturik, erretzeari uzteko tratamendua egingo dute apirilaren 25ean, maiatzaren 2an, 9an, 16an, 23an, 30an eta ekainaren 6an, Kultur Etxean, 15:00etatik 16:30era eta 16:45etik 18:15era. Izenematea hilaren 10etik 20ra egin ahal izango da udaletxeko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetan edo 943 69 74 60 telefono zenbakian.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da.

943 69 19 33.

Etxeko lanak. Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Goizeko 10:30etik 14:30ak arte. 943 65 30 34. Astelehenerik ostiralera.

KULTURA ▶

Apirilean ere, kultur egitarau oparoa

Aranburun, Kultur Etxean, Leidorren, Bonberenean nahiz herriko beste hainbat txokotan, ekitaldi ugari izango dira

IÑIGO TERRADILLOS

Erakusketak, musika, zinema, antzerkia, hitzaldiak... apirilean ere bada zertaz gozatua Tolosan.

ARANBURU JAUREGIA

'Migraciones: sonidos desiertos'. Alberto Letamendiren pintura erakusketa dago ikusgai hilaren 14ra arte.

'Herri bat erbestean'. Ander Gillenearen argazki erakusketa ikusgai hilaren 14ra arte.

Pintura eta eskultura. Iñaki Epelderren eta Nestor Basterre-
txearen eskutik, apirilaren 28tik maiatzaren 19ra. Tolosa-
ko Ekinbide Etxearen 40. urteurreneko ekimena.

Tolosa 750. Argazki Rallyko argazki erakusketa, apirilaren 28tik ekainaren 2ra arte ikusgai.

KULTUR ETXEA

Batzarra. Apetol elkartearen batzarra, hilaren 18an, 17:00etatik 19:00etara.

Txirrin Txarran. Bizi Alai aisialdi taldeen bilkura izango da hilaren 21ean, arratsaldean.

Tolosa Naturaldia. Natura jardunaldiak, hilaren 23tik 27ra, 20:00etan.

Odol ateratzea. Odol emaleen hileroko odol ateratzea, 18:00etan.



Saharari buruzko egitarauan, Alberto Letamendiren erakusketa. A.L.

LEIDOR ARETOA**Haurrentzako zinea.**

▶ Gaur, 17:00etan, *Pepper* filma (5-10 urte).

▶ Bihar, 17:00etan, *Iratxo*en erregea filma (7-12 urte).

▶ Etzi, 17:00etan, *Sorgin bat* etxean filma (7-12 urte).

▶ Igandean, 17:00etan, *Mozart txakurra* filma (5-10 urte).

▶ Hilaren 29an, 17:00etan, *Descubriendo a los Robinson*.

Helduentzako zinea.

▶ Gaur eta bihar, 19:30ean eta 22:30ean, *En Busca de la felicidad* filma.

▶ Etzi eta igandean 19:30ean eta 22:30ean, eta astelehenean 17:00etan eta 19:30ean, *Noche en el museo* pelikula.

▶ Hilaren 12an, zine-foruma-

ren baitan, *Sud Express*, 19:15ean eta 21:45ean.

▶ Hilaren 13an, 14an, 15ean eta 16an, *El velo pintado*.

▶ Hilaren 19an, zine-foruma-
ren baitan, *Cartas desde Low Jima*, 19:15ean eta 21:45ean.

▶ Hilaren 21ean, 22an eta 23an, *El ultimo rey de Escocia*.

▶ Hilaren 28an, 29an eta 30ean, *La vida de los otros*.

Antzerkia. Emakumeak izarapean antzezlan, hilaren 20an.

Pailazoak. Pirritx eta Porrotx-
en *Marimototx* lan berria, hilaren 21ean, 18:00etan.

Laskorain Ikastolak bere 40. urteurrenean antolatutako ekimena.

Kontzertua. Mariza, hilaren 26an. *Mundua Tolosan* zikloaren lehen kontzertua.

Magia ikuskizuna. *Druidas y Leyendas*, hilaren 27an, 20:00etan.

Dantza. Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkarteak antolatuta, dantza gala hilaren 29an, Leidor aretoan.

BONBERENEA**Kontzertuak.**

▶ Deveroa Chy-+ba eta C talde txekiarrek ariko dira bihar, 22:30etik aurrera.

▶ Kaotiko eta Residuos talde-
en kontzertua, hilaren 20an.

▶ Discipulos de Otilia taldea izango da hilaren 27an.

▶ THC taldea izango da Bonberenean, hilaren 28an.

BESTERIK

Arrautzaren Festa. Gaur hasi eta igandera arte, Zerkausan.

Tolosa Goxua. Gozogintzako produktuen azoka, etzi, San Frantzisko pasealekuan.

Gipuzkoa Encounter. Informatika zaleen topagunea, Usabal kiroldegian, hilaren 13an, 14an eta 15ean.

'Esperientziak' proiektuko liburua. Tolosa 750 Fundazioak antolatutako ekimenen ondotik *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak argitaratu emango duen argazki liburua eta DVDaren aurkezpena, Zerkausan, hilaren 18an.

Eskultura mostraren liburua. Tolosako Ekinbide Etxearen 40. urteurreneko ekimena. Udaletxeko batzar aretoan aurkezpena, hilaren 20an.

Garbiñe musikaria. Kontzertua hilaren 20an, Fronton kafe-
tegian, 23:30ean.

Dendarientzat ikastaroa. Gipuzkoako Merkataritza Elkar-
teak antolatutako *Desarrollo de la motivación y autoestima* ikastaroa, Kultur Etxean, hilaren 16tik aurrera.

GASTRONOMIA ▶



Arrautzak ere badu bere musika

E. Ezeiza ▶ Arrautzaren festaren baitan, David de Gorge sukaldari ezagunak eta Ignacio Ruiz de Alegria abesbatza zuzendariak hitzaldia eskaini zuten herenegun. Mintzaldi gastronomiko honetan arrautzaren erabilera desberdinak eta urteko aro desberdinetan produktu honek dituen egiturak azaldu zituzten. Bestalde, honen ostean *Arrautza 1 + lagun 1 = errezeta 1* lehiaketa egin behar bazuten ere, azken orduko aldaketak medio, bertan behar geratu zen. E. EZEIZA

EDURNE MENDIA ▶ EUSKARA TEKNIKARIA

«Euskararen normalizazioa helburu zaila da baina baikor izan behar dugu»

Euskararen normalizazioaren saileko arduradun berria da Tolosan eta Alegialdean, eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren sustapenez arduratzen ari da

NEREA URBIZU

Edurne Mendia arte ederretan lizentziatua da (Tolosa, 1980), eta euskara teknikaria izateaz gain, euskararen normalizazioaren saileko arduraduna da. Doktoretza prestatzearekin batera, Galtzaundin egiten du lan egunero.

Nora Olanoren ordez zaude.

Bai, denboraldi batez ni ariko naiz, Tolosako eta Alegialdeko euskararen eta ziurtagiriaren jarraipena egiten. Ni sustapenez eta hedapenez arduratuko naiz, Galtzaundi euskara taldea baita honetaz arduratzen dena. Aiztondon ni bezala beste bat ari da lan honetan. Hauek eragile guztietara zuzendu gara: komertzioetara, hezkuntza arloetara, enpresetara, udaletxeetara, alderdi politikoetara, hostalaritzara...

Denbora gubi daramazu lan honetan. Asko dago egiteko?

Bai, asko egin da baina oraindik asko dago egiteko. Bidea luzea da, euskararen normalizazioa helburu zaila da, baina baikortasunez ekin behar diogu lanari. Horretarako bete daitezkeen helburuak finkatu behar dira, bestela desanimatu egiten gara. Ni hasiberria naiz baina ilusioz beteta nago eta hori da besteei kutsatu nahi diedana.

Bai Euskarari Ziurtagiria Tolosaldean zabaltzeko asmoz, aurkezpen batzuk egin dituzue. Nolakoak izan da jendearen parte-hartzea?

Dena hobetu daiteke, baina garrantzitsua da egin dena baloratzea. Jendetsuagoak izatea nahiko genuke, baina gerturatu direnei proiektua erakargarria egin zaie eta konpromisoak hartzeko prest azaldu dira. Bide batez, eskerrak eman beharrean gaude bertaratutako guztiei eta baita joan ez zen jendea hurrengorako animatzea ere eskatuko genuke.

Gehien landu beharreko arloa lanarena dela esan dituzue. Zer moduzkoa izan da halen jarrera?

Bai, hori da erronka zailena. Baina langileen erantzuna oso ona izan da eta haien eskuetan dagoena egiten saiatzeko prest daude beraien enpresek ziurtagiria eskuratu dezaten, lan eremutan ere euskaraz jardun

LANEAN BERRIA

«Ni hasiberria naiz, baina ilusioz beteta nago eta hori da besteei kutsatu nahi diedana»

EUSKARA

«Tolosaldean egoera nahiko ona da baina, hala ere, hobetu beharreko hainbat gauza daude»

ERRONKA

«Zailena da jendea ohartaraztea euskararen normalizazioan, denon lana beharrezkoa dela»

ahal izan dezaten. Dena den, denetatik egon da: jarrera positiboa erakutsi dutenei laguntza ematea da gure lana. Hauekin emaitza onak lortzea garrantzitsua da, orain arte animatu ez den jendea erakartzeko.

Hilaren 19an banaketa ekitaldia egingo duzue Gurea antzokian, Villabonan. Orain arte zenbat emango dituzue?

70 inguru daude, iaz baino 10 gehiago, alegia. Beraz, pozik gaude emaitzarekin. Egun horretan ziurtagiria jaso behar duten horiek joatea nahiko genuke, haien egiten zaien nola baiteko omenaldia baita. Garrantzitsua da beraiek egiten duten lana kaleratzea. Diploma bat emango zaie, eta baita garrantzitsua da beraiek egiten duten lana kaleratzea. Diploma bat emango zaie, eta baita garrantzitsua da beraiek egiten duten lana kaleratzea.

Euskararen egoera Tolosaldean nola ikusten duzu?

Euskal Herriko gainontzeko eskualdeekin parekatuta Tolosaldeko egoera nahiko ona dela esan dezakegu, baina hobetu beharreko hainbat gauza daude: erabilera, lan munduaren euskalduntzea... Alor guztietan egoera hobetzen saiatu behar gara. Beti dago hobetu beharreko zerbait: adibidez, haurrek ikastetxeetan euskaraz ikasten dute, eta gero eta haur euskaldun gehiago dago.



N. URBIZU

Baina hortik ateratzerakoan zer? Garrantzitsua da haur horien gurasoek euskaraz jakitea, ikastetxetik kanpo ere haurrak euskaraz jarduteko aukera izan dezaten.

Ziurtagiriak zein paper beteiko du, zer mesede egingo dio animatzen den eragileari?

Euskararen alde egiten duen errekonozitzeko tresna da. Ziurtagiria bere euskararekiko konpromisoa betetzeko bitartekoba da. Aldi berean, jende aurrean bere ahalegina erakusteko bereizgarria izango du, zerbitzu euskalduna nahi duen herritarrek badu erreferentzi bat, ziurtagiria duen enpresa edo komertzioa, hain zu-

zen ere. Beraien komertzio edo erakundeetan normalizazioaren bidea jorratzen dutenek euskaldunekiko erantzunkizunez jokatzeko dute. Horrez gain, euskaraz ere aritzeko gai diren entitateak lehiakorragoak dira, eta bezeroak badaki euskararen normalizazioaren aldeko ahaleginak saritzen.

Zein da erronkarik zailena?

Jendea sentsibilizatzea eta ohartaraztea guztion lana beharrezkoa dela euskararen normalizazioan; denok egin behar dugula lan horren alde. Beste erronka zail bat, gizarte esparru guztietan euskararekin konpromisoa hartua izatea da.

ANOETA ▶

Festetarako karteletako marrazki lehiaketa

ERREDAKZIOA

Anoetako festetarako kartel lehiaketa abian da. Hauek dira bete beharrekoak parte hartzeko: kartela festetako egitarauaren liburuxkaren azala izango da. Lanak hilaren 27a baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean.

Teknika librekoa eta formatu digitalean aurkez daitezke. Hala izanez gero, JPG formatuan aurkeztuko dira. Hau agertu behar da: *Anoetako festak 2007*.

TOLOSA ▶

Bandek eskerrak eman nahi izan dituzte

Tolosako Musika Bandaren batzordeak eskerrak eman nahi izan ditu. Tolosako 2. Musika Banden Alardea arrakasta handiz ospatu zen, nahiz eta eguraldi txarra izan, eta antolatzaileak eta musika bandak «gustura» gelditu dira. Horregatik ekitaldian parte hartu duten guztiak eta aldi berean Udalak, Kutxa, Usabal sagardotegia eta Bonberenearen laguntza eskertu nahi izan dute.

ZIZURKIL ▶

Etxean konposta egiteko, hilaren 16tik aurrera

Tolosaldeko Mankomunitateak Zizurkilgo Udalarekin lanikidetzan sustaturiko konpostaje kanpainak konpostagailuak banatuko ditu, interesatuta daudenek etxeko edo baratzeko hondakin organikoak metatzeko aukera izan dezaten. Esku-liburu bat jaso eta ongaria egiten ikasiko dute. Interesatuak egun bat hautatu beharko dute ikastarora joateko eta hauetan eskainiko da: hilaren 16, 17, 18, 24, edo 25ean, 19:00etan Fraisoron, eta 21ean Laskorain Ikastolan. Informazioa jaso eta parte hartzeko 943 67 62 16 telefono zenbakira deitu behar da, edo posta elektronikoz: tolosaldea.m@euskalnet.net.

GASTRONOMIA ▶

Irirstear da gozoen festa

Tolosa Goxua azokaren XI. edizioa larunbatean egingo da San Frantzisko pasealekuan; bertakoen eta kanpokoek gozoz gatatzeko aukera izango da



Oso ohikoak diren pastelekako batzuk eta izakio azokako postu bat. ENHENTZ MAIZ/ADINE ANTINA

PARTE-HARTZAILEAK ▶

Honako hauek dira Tolosa Goxuaren XI. edizioan parte hartuko duten gozategiak. Beraz, bada non aukeratuza...

ESKUALDEKOAK EZ DIRENAK

- ▶ Ana Anbarrak Alderdierraga (Orozko). Berezitasuna euskal pastela.
- ▶ Gonzalo Garcia Alonso (Orozko)
- ▶ Ivan Garcia Alonso (Orozko).
- ▶ Berezitasuna euskal pastela eta bizkotxa.
- ▶ Pastelería Flor y Nata (Calahorra). Berezitasuna Calagurris pastela eta bizkotxa.

- ▶ Artala Gozategia (Larrabetzu).
- ▶ Bombones Irunen (Iruren). Berezitasuna bizkotela.
- ▶ Casa Aramendia (Errenteria).
- ▶ Chocollates de Navarra (Atzoain). Berezitasuna fardelejo eta erroskiak.
- ▶ Fardelejos y Rosquillas (Orozko).
- ▶ Ferrnando Gozategia (Hernani). Berezitasuna hostoak, pastak eta madalenak.

- ▶ Gurelabie SL (Mallabia). Berezitasuna euskal pastela eta erroskiak.
- ▶ Juliki Gozategia (Beasain). Berezitasuna Martindio eta Tarta Segura.
- ▶ Labegur (Berritueta). Berezitasuna pastela eta bizkotela.
- ▶ Orueta Goikoa (Llodio). Berezitasuna euskal pastela.
- ▶ Sari Argaitia (Villafraque). Berezitasuna euskal pastela.
- ▶ Teresa Petralanda Gorkina (Orozko). Berezitasuna euskal pastela eta erroskiak.

Euskal Herrian diren gozategiak hiru eke esagunenartakoak tolosarrak dira. Gorroategi, Casa Ecotza eta Gorroiti, hain zuzen ere. Hauek lan handia egin dute Tolosa gozoren hiriburua izan dadin. Baina ez dira bakarrak. Izan ere, Saizuri eta Ibañeta Gozaria gozategiak ere ez dute hutsek egingo azoka honetan. Dia eskualdekoa den Ametzeta SL-ek ere bere produkturak eramango ditu azokara.

Goiz pasa eder bat egingez, Tolosa Goxua azokara bertaratzen direnek, artisauek erara eta mimo handiekin eginen dituzten gozo hauek dastatu eta etxerako botelak ezin erosi gabe egitea zaila izango dute.

ENHENTZ MAIZ

Beste urte batez, gozoazalek gaitxi erri duten eguna irinstear da eskualdera. Larunbatean, Tolosa Goxua azokaren XI. edizioa ospatuko da eta goizeko 09:00etarako dena prest izango da San Frantzisko pasealekuan.

Lekuz aldatuta bada ere, larunbatean, San Frantzisko pasealeku guztian usain gozoa izango da nagusi. Herriko nahiz kanpoko gozategiek, bertaraten diren guztien gozamerako, kolore eta zapora guztietako gozoak kalera aterako dituzte. Produktuak eskaintza oso zabala izango da: aide batetik, ez dira faltako hain espezialak diren Tolosako xauxak, leiak eta zigarrotoak. Bestetik, pastak, erroskiak, fardelejoa, madalenak, trokolates eta deribatutak, eta guztietako pastelak... izango dira postuetan.

Ohiko eskaintzer gain, gozategiek, aurtengorako prestatutako berrinkuntzak ikusi eta nola ez, dastatu ahal izango dira. Nabarmenakoa da, esaterako, trokolate arloan sari ugari jasoko dituen Bombones Irunen gozategiak, bereziki Tolosako azokarako hiru bonboki prestatu dituela.

Euskal Herrian diren gozategiak hiru eke esagunenartakoak tolosarrak dira. Gorroategi, Casa Ecotza eta Gorroiti, hain zuzen ere. Hauek lan handia egin dute Tolosa gozoren hiriburua izan dadin. Baina ez dira bakarrak. Izan ere, Saizuri eta Ibañeta Gozaria gozategiak ere ez dute hutsek egingo azoka honetan. Dia eskualdekoa den Ametzeta SL-ek ere bere produkturak eramango ditu azokara.

Goiz pasa eder bat egingez, Tolosa Goxua azokara bertaratzen direnek, artisauek erara eta mimo handiekin eginen dituzten gozo hauek dastatu eta etxerako botelak ezin erosi gabe egitea zaila izango dute.

NIEVES SOROA ▶ GODOZILEA

«Nire espezialitatea hostorea da eta hostoreaz eginikoak eramango ditut»

E. Maiz ▶ Nieves Soroa (Lizar-tza, 1977) gozategiak Tolosako lurte ausan bere senarrarekin batera ireki zuen Saizar Gozategia. Egunerok bere bezereko ahalik eta produktu fresko eta gozozale eskaintzeko, gogotsu aritzen da lanean. Aurten ere, ez du hutsek egingo Tolosa Goxuaren XI. edizioan. Gozategian bertan eskuzabaliak hartu gaitu.

Nolatik nabaria gozategian? Hamar urte badira gozategian hasi gindak. Nire gizonak ireki zuen gozategi hau eta duela lau urte hil bazen ere, hasierako biak berberak jarraitzen ditugu. Gozategian bertan dugu lantegia eta beste bi gozategi ere laguntzat egiten ditugu gozotegian saltzen ditugun produktu guztiak, era askotako gozoki, ogiak eta opilak.

Zabenezaren alde parte hartuko duzue Tolosa Goxua azokan? Bai, laguntza aldia aurkeztuko gara Tolosa Goxua azokara baina aurtengorako beidur pixka batekin nago. Beste urtean martxoan izaten zen eta data aldatu duten horrekin ez dakit beste urtean adina jende izango ote den.

Azoka bertako ogiak dituzte? Bai, agian oker egingo naiz eta denak postik gertatuko gara eta hobe horrela bada baina egun txarra izango ote den beidur naiz. Guk gozategiko jendearentzat egiten dugun lan batik baita eta jai egunak izanik, ez daki larunbatean ikusiko dugun.

Zer eskualdeko gozoki azokan bertan? Guk lan gehiena hostorearekin egiten dugun eta egun horretarako ere hostorearekin egindako gozoak eta pantinketak eramango ditugu, hauek dira gehien egiten ditugunak. Nire berezitasuna hostorea da; mite-



E. MAIZ

toa, esneagin edo kremarekin bete. Bestalde, erraz saltzen diren pastelak jokatzen beharreko diago zeren ez dakit zer erosiho duten. Askotan azokan denden erosten ez dituzten pastelak erosten dituzte.

Berrelako azoketan jendeak erosten al du? Bai, nik pentsatzen dut salduko duguna. Esperantza horrekin joango gara behintzat, beti saltzen da. Aurreko urteetan eguraldiak lagundu izan du eta gustura geratu izan gara. Eta larunbatean ere laguntzen duen eta jendea animatzen den kalera ateraten. Inguruko herrietako gain, Donostia aldetik eta jendeak badu oihutara Tolosara etorteko eta ea orangoan ere ala den.

Azoka gabelegoan parte hartuko duzue? Ez, Tolosakoan bakarrik parte hartzen dute. Goxua azoka honetan eta Gabonetan egiten denean ere bai.

Urtean nahar gozo eskola nola al du? Bat urtebetez, jauntzetak, Gabonak... direla-eta beti saltzen da. Gabonak egun berriak dira eta aukera gehiago eskaintzen dugun, gehiago saltzen da. Pastelez gain turtak egiten ditugu eta hori nabaritzen da. Bestela, neku aldean hostorearekin egindakoak dira gehien saltzen dire-

nak eta udaran aldiz, pastel freskoak eskatzen dituzte orokorrean.

Ngurekoen ogiaz gela, zer da gehien saltzen duen zean ondoren? Opilak dira gehien saltzen direnak. Guk geuk hemen bertan artisauek egiten ditugu eta jendeak egunerokoan gutur jaten ditu. Bertan eginak izateak asko laguntzen du.

TXOTX

Arratzain
Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 Bazarri

Oialume Zar
Mikel Arzamena bidexa, 16 (a)ubos golotekin pertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartiategi
Gartiategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Iparrejarre
Oñate baserria
Tel.: 943 550 328 Hernani

Urbitarte
Ergoña-Atxoa
Tel.: 943 180 119 Atxoa

Gurutzela
Oñate bidexa, 63 (garrera Ergoña auzotik)
Tel.: 943 552 247 Astigarraga

Akelena
Oñate bidexa 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

Lizeaga
Gartiategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 Astigarraga

Urtxeta
Garran auzoa 34, Eñuxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urrieta

Retola
Sanjo Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga

Larrea Gela
Larrea Gela baserria, Eñuxeta auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

XI. tolosa goxua

Argazki lehiaketa

opor hauetan atera argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ Ir. bidaltzeko: tolosa@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaideko Hitza, Araba etorb. 5, atzea • 20040 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako eta Leitzaideko HITZaren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia

2 laguntzaz 4 eguneko egonaldia, mantxo erdiarain, Sietedardenen soto Erroiban

Bidaia Agentzia bidaide

Erribeo, 46b/6a • 20150 Villarbona
Tel.: 943 692 693
bidaide@bidaide.com

PARTE-HARTZALE ETA BOTOEMALE

guztiek iragan W 0ren motela eta mendiko pitza zozakilo dira

LIZARTZA ▶

Bi liburu berri argitaratu ditu Luis Mari Mujikak

A. IMAZ

Hiria argitaletxearekin, *Barne ibilerak II* poema liburua eta *Ipar Euskal Herriko toponimia tipia II* argitaratu ditu azken egunotan Luis Mari Mujika lizartzarrek.

«Azken urteetan sortu eta onduriko estetika eskaintzen dut, eta arrasto simbolistak, existentzialistak eta inoiz surrealistak aurkituko ditu irakurleak liburu honetan», horrela hitz egiten du zazpi poemategik osatzen duten *Barne Ibilera II* liburuaren inguruan bere egileak.

Ipar Euskal Herriko toponimia II ren inguruan berriz, Sara, Ezpeleta eta Urruñako sei mila toponimia jaso dituela aipatu behar da. Mujikaren hitzetan, Ipar Euskal Herrian 90.000 toponimo jasotzera ere hel daiteke.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzioz klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ UDALA



Udalbatza osoaren ohiko bilkura haseran EAko bi zinegotziak aretoa utzi zuten protesta moduan. ASIER IMAZ

Kanparako Udalak duen proiektuak urrats berri bat eman du

Ohiko bilkuran UA11ren desjabetza onartu zuten herenegun; EAko bi zinegotziek ez zuen parte hartu protesta moduan

ASIER IMAZ

Herenegun egin zuten, erdera hutsean, Ibarako udaletxean ohiko udalbatza osoaren bilkura. Aurreikusita zeuden 14 puntutatik 13 bozkatu zituzten, bat izan ezik denak onartuak izan zirelarik. 2007ko urtarrilaren 1eko udal erroldari buruzkoa, mahai gainean utzi zuten bozkatu gabe. Onartu zituzten artean, 11. Aktuazio Unitateko ondasun eta eskubideen desjabetza izan zen, eta ondorioz Kanparako Udalak duen proiektuak aurrera pausoa eman zuen.

Guztira zazpi zinegotzi azaldu baziren ere, bozketa garaian bost geratu ziren, EAko biak hasi aurretik irten baitziren. Gurutze Gorria: 674888 eta PSE-EEko Miguel Angel Morales ez ziren plenera agertu. 18:00etarako deitu zuten Chelo Romeo alkateak (EAJ) bilkura plenera, baina 8 minutuko atzerapenarekin heldu zen. EAko Luis Ignacio Alonsok ze ordu zen galdetu zion eserleku hartu orduko. Ondoren, «guri bi minutuko atzerapenagatik ez zenigun utzi bi bozketan parte hartzen» esan zion alkateari. Honek hiri ez zela horrela erantzu zion EAko zinegotziari, «ez ziren bi minutu

izan, zazpi baizik». EAko bi zinegotziak, Alonso eta Juan Ignacio Arozana, euren aukitiki altxa eta udal plenotik irten ziren alkatearen jarreraren aurkako protesta giza. Gertakari honen ondoren hasiera eman zitzaion ohiko bilkurari.

Idazkaria eta bost zinegotzi gain, haur eskola eta ikastolako partaideak elkartu ziren aretoan, haur eskolaren inguruko puntuak eztabaidatu behar baitzituzten bilkuran. Guz-tira 14 puntutatik 13 bozkatu zituzten, bat mahai gainean utzi zutelarik. EAko hiru zinegotzik eta Ezker Batuko bakarraren botoekin, puntu guztiak aurrera ateratu zituzten. Errausketaren aurka EBk aurkeztu zuten mozioa n aldiz, EAJ eta PSOEko bakarrak aurka bozkatu zuten, Alkatearen alderdia eta Ezker Batuaren orduarteko adostasuna hautsiaz.

Hala, 11. Aktuazio Unitateko ondasun eta eskubideen desjabetza onartu zuten herenegun. Pedro Maria Aseguinolaza (EAJ), Aureliano Rojo (EAJ), Chelo Romeo (EAJ) eta Sergio Barreirok (EB) baiezko botoa eman zuten. Aitor Gonzalez (PSE-EE) orerretarrak aldez, abstentzioa bozkatu zuten. Honen ondorioz, Udalak Kanparako aurreikusia duen proiektuak urrats berri bat eman zuten aurrera. Bertan Eguneko Zentroa, 20-24 apartamentu tuelatu eta lur azpiko aparkalekuak egiteko asmoa dauka Udal gobernuak.

tuak urrats berri bat eman zuten aurrera. Bertan Eguneko Zentroa, 20-24 apartamentu tuelatu eta lur azpiko aparkalekuak egiteko asmoa dauka Udal gobernuak.

‘Errausketarik ez’ mozioa

Ezker Batuak errausketaren aurka mozioa sartu zuen gai zerrendan. Sergio Barreirok (EB) irakurri zuen aretoan eskaera zehatzak eginez. Kokalekuaren aurka azaldu zen; errauskailuaren ondorio kaltegarriak ere salatu zituen; ondoren ikerketa alternatiboen beharra aldarrikatu zuen eta azkenik, herrian erreferendun bat egitea eskatu. Alkateak Ibarako EAJren izenean ezezkoa bozkatu zuen, «errauskailuarekin ados egoteaz gain, gure babesa berresten dugu». Romeok arrazoiak izan zezakeela esan zion Ezker Batuko zinegotziari, baina «sistema guztia aldatu beharra daukazu. Agian arrazoiaren erdia izan dezakezu, baina horregatik ezezko botoa emango dut». Aitor Gonzalezek (PSE-EE), bere aurkako botoaren zergatia azaldu zuen, «gaia politizatu egin da. Teknikoki konplexua da eta alternatibak ez dute balio zakarraren produkzioari aurre egiteko».

IBARRA ▶

KZguneak mintegiak antolatu ditu

Ibarako KZguneak hilabete honetarako 3 mintegi antolatu ditu. Lehena hilaren 13an 17:00etatik 19:00etara, *Asteburu bat Euskal Herrian* izango da. Bigarrena hilaren 20ean izango da ordu berean eta *Lan bat lortu* gaia aztertuko dute. Apirilaren 27an berriz, *Euskal Herriko Nekazal Munduaren* inguruan arituko dira. Mintegian izena emateko 943 65 37 20 telefono zenbakira deitu behar da edota tutor.tolosa@kzgu-nea.net helbidera idatzi.

IBARRA ▶

Xabiererra bidaia erretiratuek

Bizi Nahi erretiratuen elkar-teak hilaren 14rako Xabierrerako bidaia antolatu du. 09:00etan irtengo dira. Lehenik Las Campanas upeldegia ezagutuko dute Iruñean. Ondoren, Sos del Rey Catolico bisitatuko dute bazkal ordu-arte, Zangotzako Yamaguchi Hotelean. Bazkal ostean, Xabiererra iritsiko dira.

BERASTEGI ▶

Azpeitira bidaia Gaztainondo Elkartearekin

Gaztainondo jubilatuen elkar-teak Azpeitira ibilaldia antolatu du hilaren 14rako. Tren museoa ikusi eta bertan ibiltzeko aukera izango dute. Bazkariaren ondoren, Loiolako elizan izango dira. Gaztainondo elkartean lehen bait lehen izena emateko deia zabaldu dute.

PODOLOGOA ▶

Berrobin eta Berastegin zerbitzuak

Berastegin hilaren 21ean eta Berrobin 23an podologo zerbitzua izango da. Berastegin behar duenak Gaztainondoko elkartean eman behar du izena. Berrobin berriz, arratsaldeko 15:30etik aurrera izango dela jakinarazi dute. Ordua hartzeko epea 18an amaituko da eta udaletxera deituta egin ahalgo da, 943 683294 zenbakian.

MIKEL NIEVE ITURRALDE ▶ TXIRRINDULARIA

«Ongi ibili nahi baduzu, entrenatzeko denbora dezente behar duzu»

Mikel Nieve leitzarra Valenciagaren Oroimenezkoan, bere kategorian, lehenengo geratu zen, iragan igandean

N. GARZIA

Mikel Nieve Iturralde (Leitza, 1984) urte asko daramatza bizikleta gainean hainbat probetan parte hartuz. Amateur mailan bost urte daramatza eta azkeneko bietan sari ugari irabazi ditu. Igandean, Eibarren, Valenciagaren oroimenezkoan hartu zuen parte, eta bere mailan irabazi egin zuen.

Zenbat urterekin hasi zinen? 10 urterekin. Hasiberri mailan hasi nintzen, eta kategoria guztietatik pasa naiz.

Zenbat taldetan ibili zara?

Ba, orain amateur mailan Caja Rural taldearekin ari naiz, baina kadeteen eta gazteen mailan Urtxintxa taldearekin aritzen nintzen. Bertan, Leitzakoak eta Baztan aldekoak ibiltzen ginen. Eta aurretik eskoletan Leitzako taldearekin ibili nintzen: Aizan.

Amateur mailan daramatzazun 5 urteak nolakoak izan dira?

Onak. Hasieran gazteena zaren besteentzako lan egin behar duzu. Orain hauek zaharregoak dira eta profesioanetara pasatu dira edo utzi egin dute, eta lan hori guri dagokigu. Azkeneko bi urte hauetan hobekiago nabil, alde handiarekin, gainera.

Txirrindularitza talde lana da?

Bai. Askotan talde lana etapa hasieran izaten da, talderen batek alde egin badu eta lidera ez bada sartu, gazte bat bidaltzen dute normalean alde egin dutenak harrapatzen. Hori guztia taldeko zuzenda-



N. GARZIA

riak antolatzen du eta bere erabakiak proba bakoitzaren araberakoak izaten dira.

Igandean Eibarren lehenengo gelditu zinen. Zer suposatu du zuretzako?

Valenciagaren Oroimenezkoan amateur mailan dagoen egun

bateko lasterketarik garrantzitsuena da. Duela hiru urte arte proba hau irabaziz gero profesioanetara pasatzen zinen, baina azkeneko hiru urteetan ez da horrela gertatu.

Zergatik?

Beharbada gazteagoak har-

tzen hasi direlako... Ez dakit zergatik.

Zure etorkizunarekin zer gertatuko den jakiterik ba al dago?

Orain ezin da hori jakin. Urte bukaerara arte itxaron beharko dut.

Aldez aurretik zenbat sari irabazi dituzu?

Gazteen kategorian lau irabazi nituen Euskal Herri mailan eta Agurainen, duela hiru urte, beste bat. Lehendakari Txapelketa delakoa.

Txirrindulari bezala orain arte zenituen helburuak aldatu egin dira?

Ni hasi nintzenean denborapasa bat zen niretzako, bizikletan ibiltzea gustuko nuen. Baina azkeneko bi urte hauetan denbora gehiago eskaini diot eta dena beste modu batera ikusten hasi naiz.

Caja Rural-ekin leku askotan zabilzate, ezta?

Urte hasieran Extremaduran ibili ginen, gero Murtzian, Madril... Espainiako Kopan gaitza eta horretarako proba ezberdinak egin ditugu. Igandekoa, Valenciaga, horretarako puntuagarria da.

Eta Espainiako Kopan zer moduz zoaz?

Orain ongi, bosgarren noa. Hala ere, oraindik beste lau bat proba gelditzen dira.

Entrenamenduak nola egiten dituzu?

Aurten bizikletara dedikatu naiz. Ongi ibili nahi baduzu, entrenatzeko denbora dezente behar duzu. Eguneroko irabazten naiz, baina asteazken edo ostegunetan entrenamendu fuertea egiten dut, 190 kilometro ingurukoa. Ultzama aldera joaten naiz eta handik Iruñera, edo Baztan aldera... Neguan gainera beste kirol batzuk ere egiten ditugu.

Leitzan txirrindularitza nola ikusten duzu?

Hasi nintzenean jende asko zebilen, hogeita hamar inguru ginen. Indurain Tour-ak irabazten ari zenean zen eta mundu guztia bizikletan ibiltzen zen, baina orain horietatik Iñigo Sagastibeltzak eta nik soilik jarraitzen dugu.

LEITZA ▶

Aurrerako pilotariak, Irurtzungo Txapelketan

ERREDAKZIOA

Irurtzungo Pilota Txapelketa hasiko da datorren egunetan, eta bertan herriko pilotariak parte hartuko dute. Ibai Gil eta Mikel Sagastibeltza Lasarte izango dira jokatuko duten lehenengoak, gaur bertan. Bihar, berriz, herriko beste bi bikote ariko dira. Xabier Jaunarena eta Joxerra Aldaregia alde batetik, eta Jon Jaunarena eta Zabaleta irurtzundarra bestetik.

Mikel Eraso, Ander Eskudero, Mikel Hernandorena eta Aritz Sagastibeltza igandean ariko dira, kanpoko 2 pilotarien laguntzarekin.

LEITZA ▶

Aste Santurako urteroko ospakizunak

ERREDAKZIOA

Aste Santuko egunetarako ohikoa den bezala, hainbat ospakizun antolatu ditu Leitzako Elizak. Gaur, 17:00etan Eukaristi Ospakizuna egingen dute, eta 23:00etan, Ordu Santua.

Ostiralean 08:00etan Santa Krutzera gurutz bidea egingen dute, 10:30ean Barkamenaren Ospakizuna eta 17:00etan, Jaunaren Nekaldia. Larunbatean, berriz, Pazko Gaubeila delakoa ospatuko dute 22:00etan.

Aste Santuko ospakizunen barruan baina hurrengo astean, hilaren 15ean, Meza Nagusian bataioak egingen dituzte herriko parrokiak.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95



eta Tolosaldeko eta
 Leizaldeko
 77 gizarte eragile



Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. Kudeatzailea. Jon Mujika. Publizitate. 661 678818. tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
 Tolosa. 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. Vilabona-Aiz. 687 410022. vilabona-aiz@tolosaldeko-hitza.info.
 Anoeta. 687 410022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info. Ibarra. 687 410032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
 Alegialdea. 687 410034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info. Leizaldea. 687 410118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

'HITZA' LAGUNTZEN
 DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baiñarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leiza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko apirilaren 5a, osteguna ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

11

hotzerna

9

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (salutzak argitzea, harpidetuen egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Asvinenea kultur elkarteak Poltsikoko antzerki lehiaketa antolatatu du. Lanak apirilaren 6rako aurkeztu behar dira Asvinenean (info@asvinenea.com, Zubitxiki 15, 20.150) 30 euro ordainduz. Mila euroko saria dago.
Alegialdea. Idoia Sanchezek ipuinak kontatuko ditu Abaltzisketako liburutegian 17:00etan eta Amezketako liburutegian 18:15ean.
Ibarra. Bizi Nahi jubilatutako elkarteak irteera antolatatu du hilaren 14rako Xabiererra: Las Campanas bodega, Sos del Rey Catolico, bazkaria Zangozan, Xabier eta Iruñea. Izen-ematea, elkartean 25

eurotan (27 ez bazkideek).
Tolosa. Haur Liburuaren Eguna dela eta, *Sirenatxo*a ipuinari buruzko erakusketa izango da Haur Liburutegian, ipuinek ikastebeetan egindako marrazkiekin.
Tolosa. Arrautzaren Festa izango da Zerkausian gaurtik 8ra: egunero bazkariak eta 6an eta 7an baita afariak ere, eskualdeko jatebeek emanak 35 eurotan. Izen-ematea, 943 318608 edo erreserba@logika.es helbidean.
Tolosa. Aurten Kazkabarra Taldearen 25. urteurrena da, hori dela eta, urte hauetan taldearekin harremana izan dutenentzat afaria antolatatu dute apirilaren 21erako. Hala, txartelak eskuragai dira

Ikatzta, Raku eta Mescal tabernatan.
Tolosa. Iturriza jubilatutako elkarteak (Euskal Herria plaza) Andorrara irteera antolatatu du maiatzaren 7tik 10era. Prezioa: 170 euro (ez bazkideek 175). Informazioa eta izen-ematea elkartean (943 698330).
Tolosa. Harizpe jubilatutako pensionista elkarteak Saloura oporraldia antolatatu du maiatzaren 27tik ekainaren 19era. Pentsio osoa hiru izarreko hotelean 381 euro (ez bazkideek 387). Informazioa eta erreserbak, egoitzan.
Tolosa. La Jara Extremadurako Zentroak irteera antolatatu du Extremadurara maiatzeko zubirako Trujillo (Cáceres), Don Benito (Badajoz), Zafra (Badajoz), Jerez de Los

Caballeros (Badajoz) eta La Serena (Badajoz) bisitatuz. Prezioa: 230 euro. Izen-ematea, 675 707619

ZINEMA

Tolosa. *Pepper* haurrentzako filma Leidor aretoan 17:00etan.
Tolosa. *En busca de la felicidad* filma (drama) emango dute Leidor aretoan, 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
Bihar
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

Etzi
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

Apirilak 8, igandea
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Azpiroz, L. Amaro zuoa, 9. 943 675118.

IRRATIA

Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALEKO ETA LEIZALDEKO HITZAREN errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN!

Hire ongietorriarekin batera ea denena ospatzen diagun! Denok gogor borrokan! Muxu bat.



ZORIONAK!

Minde. Laixter koadrilan bat gehio! Eongo gabik!



URTE ASKOAN

Jon (Ibarra). Gaur 28 urte.
 Zorionak eta muxu asko familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Asier Azkoain Dorransoro (Tolosa). 10 urte. Asteleheneko partez, amonaren partetik.



URTE ASKOAN
Peru Oreja Zubeltzu (Tolosa). Bihar 2 urte. Zorionak ebekoen eta aitonen partetik.



URTE ASKOAN
Arkaitz Agirretxe Arozana (Altsasu). Datorren igandean 3 urte. Muxuak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Haizea Jauregi Aristi (Tolosa). Gaur urtebete. Muxuak familiaren partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea